

2008ko AZAROAREN 6an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2008ko azaroaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen dute: Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
 - 2008ko urriaren 2an ospatutako ohiko bilkura.
 - 2008ko urriaren 27an ospatutako ez-ohiko bilkura.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Manuel Larramendi Kultur bazkuneari 2008 urteari dagokion ekarpenaren kitapena burutzea, hala badagokio.**
- 4. 2007. Urteko Aurrekontuaren kontu Orokorren onespena, hala badagokio.**
- 5. Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak Larraulgo AA.SS-etako 1.2 E.U-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman eta abala itzultzeko egin duen proposamena aztertzea.**
- 6. Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak Larraulgo AA.SS-etako 4.1 E.U-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman eta abala itzultzeko egin duen proposamena aztertzea.**
- 7. Larraulgo AA.SS-etako 1.1 E.U. eta 1.2. E.U-ko urbanizazioa errezezpionatzea, hala badagokio.**
- 8. 2009 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskeintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala badagokio.**
- 9. Fakturak eta ordainketak.**

10. Beste batzuk.

11. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2008 urteko urriaren 2ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2008 urteko urriaren 27ko Ez-Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

17/2008 Alkatetza Ebazpena, urriaren 30ekoa, 2008ko 3. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNEARI 2008 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2008 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoa dela eta Larraulgo Udalbatzak 2008ko otsailaren 7an aurkeztutako egitasmoaren aurrekontua onestu zuela, hau da, 2.455,00€, aipaturiko diru kopuruaren % 60^a ordaintzeko erabakia hartu zuelarik.

Ikusirik Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, aurkeztu dituela:

- 2008. Urteko gastuen urtarriletik irailera bitarteko kitapena.
- 2008. urteko dirusarreraren urtarriletik irailera bitarteko kitapena.
- 2008. Urtean Larraulgo udalaren egoera argitzen duen agiria. Non Larraulgo Udalak 982,00 euro ordaindu behar dituen egitasmoa aurrera eramateko onestutako aurrekontua bere osotasunez ordaintzeko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: “Beterri Aiztondo gerora bidean “ 2008 ekitaldirako onestutako aurrekontuaren, hau da, 2.455,00 eurotako kopuruaren % 40aren ordainketa burutzea, hau da, 982,00 euro.

LAUGARREN PUNTUA

2007. URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2007 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzen.

Ikusirik 2008ko irailaren 26an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendeaurreko epea ireki dela 2008ko irailaren 27etik 2008ko urriaren 14a bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2007 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.

BIGARENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L. BALTZUAK LARRAULGO AA.SS-etako 1.2 E.U-an URBANIZAZIO LANAK EGOKI AMAITUTZAT EMAN ETA ABALA ITZULTZEKO EGIN DUEN PROPOSAMENA AZTERTZEA

Ikusirik Rafael Ramirez Aramendia jaunak, Gestion y desarrollo Goiargi, S.L. baltzuaren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo AA-SS etako 1.2. E.U.-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman direlako abala itzultzeko egin duen eskaera.

Ikusirik 2008ko urriaren 30ean Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean dioena:

“Rafael Ramirez Aramendia jaunak, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. ren izenean 1.2. exekuzio unitatearen urbanizazioaren abala berreskuratzeko egindako eskaera eta udal errezepzioa egin zenetik urte bete pasa dela ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

2008ko urriaren 27an ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, 1.2. unitateko urbanizazioa ondo dagoela informatzen dut eta kalte adierazgarri nabarmenik ikusten ez direnez, egokia izango da urbanizazioaren abala bueltatzea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Arau Subsidiarioen 1.2. exekuzio unitatearen Urbanizazioa bukatu denetik urtebete igaro denez, eta kontutan izanik Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean dioena, obrak bermatzeko jarritako fidantza bueltatzeko beharrezkoak diren izapideak martxan jartzea.

SEIGARREN PUNTUA

GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L. BALTZUAK LARRAULGO AA.SS-etako 4.1 E.U-an URBANIZAZIO LANAK EGOKI AMAITUTZAT EMAN ETA ABALA ITZULTZEKO EGIN DUEN PROPOSAMENA AZTERTZEA

Ikusirik Rafael Ramirez Aramendia jaunak, Gestion y desarrollo Goiargi, S.L. baltzuaren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo AA-SS etako 4.1. E.U.-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman direlako abala itzultzeko egin duen eskaera.

Ikusirik 2008ko urriaren 30ean Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean dioena:

“Rafael Ramirez Aramendia jaunak, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. ren izenean 4.1. exekuzio unitatearen urbanizazioaren abala berreskuratzeko egindako eskaera eta udal errezepzioa egin zenetik urte bete pasa dela ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

2008ko urriaren 27an ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, 4.1.. unitateko urbanizazioa ondo dagoela informatzen dut eta kalte adierazgarri nabarmenik ikusten ez direnez, egokia izango da urbanizazioaren abala bueltatzea.”

Gaia aztertutik, Udaltzaria honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Arau Subsidiarioen 4.1. exekuzio unitatearen Urbanizazioa bukatu denetik urtebete igaro denez, eta kontutan izanik Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean dioena, obrak bermatzeko jarritako fidantza bueltatzeko beharrezkoak diren izapideak martxan jartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO AA.SS-tako 1.1 E.U. URBANIZAZIOA ERREZEPZIONATZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik Rafael Ramirez Aramendia jaunak, Gestion y desarrollo Goiargi S.L. ren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo Arau Subsidiarioen 1.1. exekuzio unitatearen urbanizazioaren errezepzioa egiteko eskaera egiten duen.

Ikusirik 2008ko urriaren 30ean Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean dioena:

“Rafael Ramirez Aramendia jaunak, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. ren izenean 1.1. exekuzio unitatearen urbanizazioaren errezepzioa egiteko eskaera ikusirik, eta 2007-ko maiatzaren 23-ko txostenean urbanizazioa burutzeko udalaren partetik eskatu ziren lanak dagoeneko eginak daudenez, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen exekuzio proiektuari egokitzen zaiola adierazten dut.

Beraz, urbanizazioan egon diren moldaketek ere Larraulgo araudia betetzen dutenez eta udalaren partetik beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da urbanizazioa errezepzionatzea.

Dena den, eta abala bueltatzeko, etxeen terrazatik frontoi aldera ematen duen saneamenduari irteera egokiago bat eman beharko zaio eta obraren eraginagatik San Esteban plazako puskatutako baldosekin udal-akordio batera heldu beharko da.”

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENENGOA: Rafael Ramirez Aramendia jaunak Gestion y desarrollo Goiargi S.L.ren izenean eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Arau Subsidiarioen 1.1. exekuzio unitatearen urbanizazioaren errezepzioa onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2009 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKEINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2009. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeke unea dela.

Ikusirik 2008 urteko urriaren 21ean Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimendua, batetik, eta bestetik, 2008ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Ikusirik 2008eko azaroaren 6an Ogasuneko Batzorde Informatzaileak eginiko aldaketa proposamenak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2009 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,25.

Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.

1.2.Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.

1.3.Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

Ordenantzaren eranskina honela berridatzi da:

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient.	Euroak
A)Turismoak:	
9 zaldi fiskal bitartekoak %1,58.....	28,48
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak %1,58.....	56,97
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak %1,58.....	94,95
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak %1,58.....	132,94
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak %1,58.....	170,92
20 zaldi fiskaletik gorakoak %1,58.....	208,90
B)Autobusak:	
21 plaza bitartekoak %1,58.....	131,61
21 - 50 plaza bitartekoak %1,58.....	187,45
50 plazatik gorakoak %1,58.....	234,31
C)Kamioiak:	
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria %1,58.....	66,80
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. %1,58.....	131,61
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e. %1,58.....	187,45
9.999 kg-tik gorako k.e. %1,58.....	234,31
D)Traktoreak:	
16 zaldi fiskal bitartekoak %1,58.....	27,91
16 – 25 zaldi f. bitartekoak %1,58.....	43,87
25 zaldi fiskaletik gorakoak %1,58.....	131,61

E)Trakzio mekanikoko ibilgai-luen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabil-garria %1,58.....	27,91
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. %1,58.....	43,87
2.999 kg.tik gorako karga e. %1,58.....	131,61

F)Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak %1,58.....	6,98
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak %1,58.....	6,98
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek. %1,58.....	11,96
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek%1,58.....	23,93
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek. %1,58.....	47,85
Motozikletak 1.000 cctik gora %1,58.....	95,71

1.4.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Baserrien berrikuntza	%2,5
Besteak:	
a)60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:	%4,50
b)60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua:	%5,00

HOBARIAK:

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea

duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Karga tasa: % 6.29 ra igotzea proposatzen da.

BIGARRENA.- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

2.1.1. Ur horniketa.

1.Ur horniketa

Euroak

1.1.Ur Kontsumoa

1.1.1.Nekazal eta abeltzain ustiapenak ez direnentzat

30m3.bitartekoa, hiru hilabetez 15,00 €

31m3tik goragokoa, hiru hilabetez0,56 €/m3bakoitza

1.1.2. Nekazal, ganadu ustiapen erabilerak

30m3.bitartekoa, hiru hilabetez 15,00 €

31m3tik goragokoa, hiru hilabetez 0,56 €/m3bakoitza

1.2. Azpiegitura kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko.....9,00€

1.3.Kontadoreen alokairuen kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko.....8,00 €

1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko 100,00 €.

1.5.- Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. eranskina.

-Baldintzak

- Larraulgo udalerrian familiako kide guztiak erroldatuta egotea.
- Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea etxebitzan bizi direnak.
- Taulan adierazitako diru sarrera eremuan aurkitzea.

- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Familiako kide guztien NANaren fotokopia.
- Errolda eta elkarbizitza ziurtagiria.
- Familiako kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Errenta aitorenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria.
- Foru Ogasunak emandako ondasunen agiria.

2.1.2.- Zabor bilketa zerbitzua

Euroak

Etkez-etxeko bilketa, hiruhileko.....	40,00 euro
Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko.....	54,00 euro

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. Eranskina.

-Baldintzak

- Larraulgo udalerrian familiako kide guztiak erroldatuta egotea.
- Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea etxebitzan bizi direnak.
- Taulan adierazitako diru sarrera eremuan aurkitzea.

-Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Familiako kide guztien NANaren fotokopia.
- Errolda eta elkarbizitza ziurtagiria.
- Familiako kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Errenta aitorenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria.
- Foru Ogasunak emandako ondasunen agiria.

2.1.3. Dokumentu administratiboen igorpena:

2.1.3.1. Lizentziak, kontzesiok eta hirigintzako baimenak mantentzea proposatzen da:

- Hirigintz dokumentuen izapidetzea, txostena behar den kasuna. 80,00 euro.
- Segregazio baimenak..... 80,00 euro
- Hirigintza kontsultak..... 80,00 euro.
- Lehen erabilera baimena 105 euro/etxeko.
- Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa.....1.600,00 euro

2.1.3.2. Iharduera baimenak Euroak

A.1. IGOKA-ri lotuak.....110,00 euro

A.2. IGOKA-ri ez lotuak.....80,00 euro

2.2. Herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkion tasen Ordenantza fiskala

Tarifak mantentzea proposatzen da.

2.2.1. Hileta zerbitzuak:

- Hezurtegiaren emakida:
- Behin-betiko emakida, plaka
barne.....193,00€
- Nitxoen emakida:
- 15 urteko epean, plaka,
apala,.....263,00€
- 5 urte bitarteko
luzapenagatik.....122,00€
- Lurperatze tasa: 46,00 euro.

2.2.3.- Kirol instalazioen erabilera: *3 euro orduko.*

2.2.4.- Bestelako prestazioak:

- *Mapen salmenta: 3 euro unitatea.*

HIRUGARRENA.- 2009 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

1.- HOBARI ESKAERA: 2008 urteko abenduaren 1etik 31 arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2009 urteko apirilaren 1etik ekainaren 1 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2009 urteko maiatzaren 1etik ekainaren 30 arte.

2009 urteko abuztuaren 3tik urriaren 2 arte.

2009 urteko azaroaren 2tik abenduaren 31 arte.

2010 urteko otsailaren 1etik martxoaren 31 arte.

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedienteaz aztertu eta erreklamazioak edota iradozikunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betiko onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

JUAN RAMON RUIZ LAGE	92,80
TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L.	34,80
IBERDROLA	173,65
GARAJE EKIN	441,33
MANPEL	23,70
ARGITU ASESORES	162,98
CALPARSORO INDUSTRIAL S.L.	59,39
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	1.811,80
IZFE	1.572,61
ULAHÍ	741,05
TELEFONICA	78,35
EUSKALTEL	174,16
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	25,98
TELEFONICA	84,90
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	26,25
IBERDROLA	230,28
IBERDROLA	66,87
IBERDROLA	91,05
IBERDROLA	264,56

IBERDROLA	36,33
IBERDROLA	143,43
IBERDROLA	28,90
IBERDROLA	289,56
MANPEL	22,27
URTZI	2.339,02
EBA ERKIZIA BRION	985,46
BABESA SUZAI, S.A.	826,31
IBERDROLA	183,81
ARGITU ASESORES	214,02
JOXAN ALTUNA	9,28
JOXAN ALTUNA	148,56
JOXAN ALTUNA	123,80

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **11.523,47** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

10.1. EUSKO JAURLARITZAKO HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARIAK IGORRITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendariak igorri duen intzidentziaren 3. Jakinarazpena, non dioen, jaso dutela 364155 intzidentzia-zenbakia duen kexaren inguruan Larraulgo Udalbatzak 2008ko ekainaren 5ean hartutako erabakia, jakinaraziz erabaki horren berri herritarrari eman diotela. Eta intzidentziaren 1. Eta 2. Jakinarazpenari ez zaiolako erantzunik eman hirugarrengo jakinarazpena igortzen dute.

Ikusirik aurreko intzidentzietan bezalaxe ELEBIDEk Larraulgo Udalari bi gomendio egiten dizkiola, ondorengoak izanik:

-Jarraitu, bada, euskaraz lanean, baina itzuli gaztelaniara herritar horiei eman beharreko komunikazioak.

-Udalbatzak hartutako erabakia aldatzea, euskararen legeak ezartzen duena onartuz, Larraulgo biztanleen eskubideak bermatuak izan daitezen.

Gaia aztertutik, Udalbatza hau osatzen dutenak gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, hurrengo Udalbatzararte.

10.2.UDAL ARTXIBOAREN MANTENU LANAK ESLEITZEKO ERABAKIA.

Ikusirik Udal artxiboaren mantenimendu lanak egiten duen duen langileak, lana utzi duela.

Ikusirik Larraulgo Udal artxiboa mantentzeko lanak egiteko bi proposamen eskatu direla.

Ikusirik proposamenen artean egokiena Consuelo Urteaga Uria andreak eginikoa dela. Hau da, bere proposamena ondorengoan datza:

Udal artxiboko mantenimenduaren aurrekontua 928euro BEZ barne urtero. Mantenimenduaren kontratuan sartuko da:

- Urtean zehar, dokumentu edo artxiboarekin zer ikusirik dauzkan gai guztiak argitzea.*
- Urtean behin, Udaletxeak sortzen dituen dokumentu guztiak ezarritako sisteman sartzea.*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Consuelo Urteaga Uria andreari, Larraulgo Udal artxiboaren mantenimendu lanak egiteko kontratua esleitzea, 928 euroko kostua izango duelarik (BEZ barne). Urtero %5eko igoera izango du. Mantenu lanak ondorengoak izango direlarik:

- Urtean zehar, dokumentu edo artxiboarekin zer ikusirik dauzkan gai guztiak argitzea.*
- Urtean behin, Udaletxeak sortzen dituen dokumentu guztiak ezarritako sisteman sartzea.*

BIGARRENA: 928euroko gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Consuelo Urteaga Uria andreari ematea.

10.3.ERANTZUNKIZUN ZIBILA ETA MULTIRRIESGO ENPRESARIAL ASEGUROEN BERRITZEA.

Ikusirik 2009 urteko urtarrilean erantzunkizun zibila eta multirriesgo enpresarial aseguroak bukatzen direla. Gaur egun Roberto Lizaso aseguru etxearekin ditugu, azken honek multirriesgo enpresarial aseguru ez duela berrituko jakinarazi digularik.

Beste bi aseguru etheen proposamenak eskatu dira, ondorengoak izanik: MAFRE ETA IÑAKI OTAEGUI . Larraulgo Udalarentzak egokiena MAFRE aseguru etxearena izan delarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: MAFRE Aseguro etxeari, 2009 urteko urtarrilean bukatzen diren Erantzunkizun zibileko eta Multirriesgo enpresarial aseguroak esleitzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri MAFRE aseguru etxeari ematea.

10.4.HERRIKO JAIEN KITAPENAREN BERRI EMATEA.

Ikusirik San Juan, San Esteban eta San Bartolome jaiak pasa direla, Alkateak jai hauetan egon diren gastuen berri ematen du. Jai guzti hauen kitapena ondorengo izan delarik:

ORDAINKETAK

San Joan hitzaldia	200,00
Aulki	308,39
Argi engantxeak	613,43
Nunbait-Lain	800,00
Nunbait-Lain afaria	240,00
Laket erromeria	1.000,00
Ansoregi erromeria San Esteban	500,00
Ansoregi erromeria San Bartolome	500,00
Solano eskolakoak	500,00
Txaranga	115,00
Jokulandia	1060,00
Bertsolariak	1166,73
Atxaferoak	48,00
Kartelak	300,00
Goiz Argi	554,02
Herri Ostatua	293,10
Buru Handiak	64,00
Herri kiroletako nikiak	112,00

Montaje eta garbiketa bazkariko janaria	70,00
Txirrindulari igoerako ogiak	13,10
Haur bazkaria	
Janaria	120,50
Tiratxinak	8,00
Jokuak	43,05
Tarroak	16,00
Helatuak	39,55
Opariak	
Trofeoak San Esteban	268,00
Trofeoak San Bartolome	174,00
Medailak	23,06
Pala txapeldun afaria	68,00
Boletinak eta palak	108,96
Freskagarriak	31,38
Edariak eta txanpaña	163,32
Elkartea	
San Esteban	678,28
San Bartolome	688,42

DIRU SARRERAK:	Euroak
-Banketxean	13,02
-Udalaren ekarpena	10.000,00
-Propaganda (laguntzaileak)	540,00
-San Joan afaria	90,00
-Guraso bazkaria	10,00
-Zikiro afaria	150,00
-Kañabera	193,75
GUZTIRA:	11.026,77
ORDAINKETAK GUZTIRA:	10.888,29
BALANTZEA:	+138,48

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2008. Urtean San Joan, San Esteban eta San Bartolome jaietan egindako gastuen likidazioa onestu, 10.888,29 eurotako gastua izan delarik.

10.5.GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKARAKO DEPARTAMENTUAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak eginiko eskaera, hau da Mendekotasuneko legea sartzek eragiten ari dela eskaera asko egotea, horretarako eta lana azkartzeko Larraulgo Udal Errolda modu informatikoan kontsultatzeko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU.

BAKARRA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eginiko baimena eskaera ez onestea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA